


Euskal AEko industria-prezioek % 2,1 egin dute behera 2023ko martxoan, aurreko hilabetearen aldean

2022ko martxoaren aldean, industria-prezioek % 0,7ko igoera izan dute

Euskal AEko industria-prezioek % 2,1 egin dute behera 2023ko martxoan, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Martxoko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– positiboa da oraindik, % 0,7koa.

Analisi zehatzago batek erakusten du 2023ko martxoan prezioetan aurreko hilaren aldean jaitsiera nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 13,9ko jaitsiera), *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 2,1) eta *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 1,7). Prezioetan hilen arteko hazkuntza nabarmenenak izan dituzten sektoreak, ordea, honako hauek izan dira: *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 4), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 0,9) eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 0,6).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, 2023ko otsailaren aldean, *Energiak* behera egin du prezioetan (% 8,9), eta *Kontsumo-ondasunek* % 0,2. Azken horien kasuan, jaitsiera honako sektore hauen beherakadaren ondorio izan da: *Kontsumo iraunkorreko ondasunak* (% 1,1) eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunak* (% 0,1). Bestalde, *Ekipo-ondasunek* % 1,7ko igoera izan dute, eta *Tarteko ondasunek* % 0,2ko igoera.

Urte arteko terminoetan, 2023ko martxoan, 2022ko martxoaren aldean, prezioen hazkuntza handienak honako adar hauetan izan dira: *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 17,3), *Erauzketa-industriak* (% 15,0), *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 14,3), *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 13,9) eta *Ura* (% 8,2). Prezioak, urte arteko terminoetan, ordea, negatiboak izan dira *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* adarrean (% 17,6) eta *Kokeriak eta petrolio-fintzea* adarrean (% 14,7).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Martxo 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	131,4	-2,1	0,7
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	127,0	0,2	15,0
Manufaktura-industria	130,9	0,2	4,6
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	133,3	-0,1	14,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	104,7	0,9	1,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	148,6	0,3	17,3
Kokeak eta petrolio fintzen	144,5	-1,7	-14,7
Industria kimikoa	151,2	-1,0	6,8
Botiken fabrikazioa	128,5	0,0	7,1
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	122,2	0,6	13,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,9	0,1	6,6
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,9	-2,1	2,3
Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa	115,3	-0,2	2,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,7	0,0	5,7
Garraioko materialen fabrikazioa	112,7	4,0	6,9
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	120,2	-0,1	7,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	134,5	-13,9	-17,6
Ura	130,1	-0,8	8,2
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,9	-0,2	12,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	114,7	-1,1	5,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	132,5	-0,1	13,6
Ekipo-ondasunak	118,3	1,7	6,5
Bitarteko ondasunak	136,1	0,2	8,7
Energia	142,0	-8,9	-16,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Apirilaren 19a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren arabera ondantalde handi guztietan, *Energian* izan ezik, % 16,5 egin baitu behera. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 12,5 egin dute gora, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 13,6 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak*, % 5,3. *Tarteko ondasunen* prezioek % 8,7 egin dute gora, eta *Ekipo-ondasunenek* urte arteko % 6,5eko igoera izan dute.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **88,98**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62